

500 urte, hamaika sarraski

Ia bostehun urte egin ditu Ekialdeko Timorrek kanpoko indarren menpe. Eta gogotik sufritu behar izan du.

- **1512:** Portugaldarrek Timor uhartera berenganatu zuten. Sandalo egurra, ezti, argizaria, kafea eta esklaboak lortzeko erabiltzen zuten.
- **1859:** XVII. mendetik borroka handiak izan ziren holandar eta portugaldarren artean Timor zela eta. Azkenean, 1859an, bitan banatu zuten ofizialki uhartera: mendebaldeko erdia holandarren menpe geratu zen eta ekialdeko erdiak portugaldarren esku segitu zuten.
- **1895:** Kolonizatzaile portugaldarren aurkako erreboltak izan ziren.
- **1949:** Ekialdeko Timor izena hartu zuen herrialdeak.
- **1974-1975:** Krabelinen Iraultza Portugalen. Militar progresistek diktadura salazarista amaiarazi zuten. Ondorioz, deskolonizazio prozesua hasi zen eta Lisboak Ekialdeko Timorren zituen ordezkariak erretiratu zituen. FRETILIN fronte independentista eta ezkertiarrek hartu zuten agintea. Denbora gutxirako, ordea; berehala Indonesiaren inbaditu baitzuen. Suharto diktadoreak agintzen zuen orduan Indonesian eta haren indarrek sarraski handiak egin zituzten Timorren. 200.000 lagun hil zituzten, orduko biztanleen herenak.
- **1976:** Ekialdeko Timor Indonesiako 27. probintzia izendatu zuen ofizialki Suharto diktadorearen gobernuak. NBEk inoiz ez du onartu hori.
- **1985:** Ekialdeko Timor Indonesia zela onartu zuen Australiak. Onarpen hori kolpe handia izan zen erreboltari independentistentzat.
- **1996:** Carlos Ximenes Belo gotzainak eta Jose Ramos Horta erbesteko Atzerri ministroak Bakearen Nobel Saria jaso zuten, timortarren eskubi-deen alde egiteagatik.
- **1998:** Protesta handien ondoren, Indonesiako Suharto diktadoreak boterea utzi behar izan zuen. Ekialdeko Timorko aldarrikapenak indartu egin ziren. BJ Habibie presidente berriak autonomia eskaini zien.
- **1999:** Autonomia edo independentzia aukeratzeko eskumena timortarren esku uztea hitzartu zuten Portugalak eta Indonesiak. NBEk gidatuta, erreferenduma egin zuten abuztuan: biztanleen %78,5ek independentziaren alde bozkatu zuten. Indonesiaren aldeko paramilitarrek, Armadaren laguntzaz, sarraski handiak egin zituzten, jende asko hil zuten eta azpiegitura guztiak hondatu. NBEk gidatutako hiru urteko trantsizio epea hasi zen.
- **2002:** Maiatzaren 20an estatu independente gisa eratu da Ekialdeko Timor.



Biztanleak: 800.000.
Eremua: 14.475 km².
Hizkuntzak: tetuna, portugesa, indonesiera.
Etniak: mauberea (melanesiar eta malaiar jatorrikoak), txinatarrak, portugesa.
Erljiokoak: sinesmen tradizionalak, katolikoa (%30).
Langabezia: %70-80 inguru.
Bizi-itxaropena: 50 urte (emakumeak), 49 urte (gizonezkoak).
Haurren hitze-tasa: 33 mila jaiotzako.
Hezkuntza: Biztanleen erdiak baino gehiago analfabetoak dira. Haurren %70ek jasotzen dute lehen hezkuntza eta %44k bigarrena.
Per capita errenta: 320 dolar.

irabaziak eman baino. Ondoren, Indonesiaren menpe egon den bitartean, estatu handi horretako probintzia txiroena izan da beti, eta, esate baterako, haurren hiltze tasa Indonesia guztian baino askoz ere handiagoa zen han.

Indonesiaren mendekua

Dena dela, egia da Jakartako gobernuak hainbat azpiegitura inbertsio egin zituela Ekialdeko Timorren, neurri handi batean bertako aurkakotasuna aldekatuz bihurtzeko. Baina, egia da, halaber, 1999ko abuztuan independentziari buruzko erreferenduma egin eta timortarren gehiengo itzelak Indonesiatik bereiztea erabaki zuenean Indonesiaren aldeko paramilitarrek Armadaren laguntzaz aurrean harrapatu zuten guztia txikitu zutela: errepideak, industria apurra, erietxeak, eskolak, etxebizitzak, ur hornikuntza sareak, hedabideak... Ildo beretik, kafe uztak eta sandalo basoak erre zituzten. Funtsean, etorkizuneko Timor independenteari baliagarri gerta zekioken guzti-guztia hondatu zuten. Orobat, ehunka lagun hil zituzten bortizkeria itsuena erakutsi zuten egun haietan eta 200.000 bat timortarrek beren bizilekuetatik alde egin zuten. Haietako asko itzuli dira berriro etxera, baina aurretik egonaldi luze eta gogorra egin dute Mendebaldeko Timorko errefuxiatu eremuetan. Jende asko hil da elikagai eskasiagatik eta osasun arloko baldintza txarregatik.

Sarraski hori izan zen Indonesiaren azken mendekua. Baina aurretik ere egin zituzten horrelakoak eta handiagoak: 1975ean, Portugalak independentzia eman eta berehala inbaditu zutenean, 200.000 timortar inguru hil zituzten, garai hartako biztanleen herenak. Suharto diktadoreak gidatuta indonesiarrek Ekialdeko Timorren egindako sarraskia inoizko handienetako bat dela esaten da, baina nazioarteko komunitateak jaramon gutxi egin zion. Ziur asko, herrialde txiki eta behartsua delako —14.475 km² baino ez du, Euskal Herriak baino ia 6.000 km²

gutxiago—, eta Indonesia eta Australia erraldioen artean dagoelako kokatuta. Azken batean, arrain handiak txikiak jateko duen erraztasun ikaragarriaren erakuse.

Neurri batean, hondamendi horiek guztiak behar izan dira nazioartea Ekialdeko Timorrera begira jarri eta esku hartzen hasteko. Independentziaren aukerak erreferenduma irabazi eta Indonesiako milizien jokabide basatia ikusita, UNAET erakundea sortu zuten Nazio Batuek, hots, trantsizioa gidatzeko behin-behineko administrazioa, eta joan den astelehena arte haren esku izan dira Ekialdeko Timor zuzentzeko uhalak.

Ildo horretatik, neurri handi batean

Ekialdeko Timorren ia ez dago medikurik, irakaslerik, ingeniariarik eta maila horretako prestakuntza duen jenderik



Clinton AEBetako presidente ohia, joan den igandean, Gusmao Timorko lehendakaria agurtzen. • AP

nazioarteko laguntzari esker bizi izan dira azken bizpahiru urteetan Ekialdeko Timorren, eta oraindik ere urte batzuz soka horri tiraka segitu beharko dute. Xanana Gusmao presidente karismatikoak zein Mari Altakiri lehen ministroak egunotan behin eta berriz nabarmendu dutenez, «herrialdea berreraikitzea» izango da datozen urteetako lehentasuna eta horretarako mundu osoko laguntza beharko dutela adierazi dute. Batetik, azpiegitura materialak behar dituzte; egun, irautekoa baino ez den ekonomia bat abian jartzeko tresnak.

Bestetik, jendea prestatu behar dute, horixe baita gabezia handienetako bat: biztanleen erdiek baino gehiago ez dakite irakurtzen eta idazten, ia ez dago medikurik, irakaslerik, ingeniariarik eta maila horretako prestakuntza duen jenderik. Haur eta gazteen hezkuntzarekin ere arazoak dituzte: izan ere, maisu-maistra gehienak indonesiarrak ziren eta independentziaren hautuarekin batera alde egin dute Timortik.

Itxaropena, petrolio eta gasa

Behar gorria du, beraz, Ekialdeko Timorrek, eta behar gorria dagoenean, edozeri heltzen zaio, baita Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtzak ematen dituzten aurpegi biko «laguntza maileguei» ere. Hain justu, datozen hiru urteetarako Diliko gobernuari 440 milioi dolarreko «laguntza» ematea erabaki zen Munduko Bankuak eta NBEk Ekialdeko Timorri buruz egindako bilera berezian.

Dena dela, Ekialdeko Timorko ekonomia benetan suspertzeko itxaropena sortu duena petrolio eta gasa esportatzeko aukera da. Agi denez, petrolio eta gas hobi handiak dituzte timortarrek itsasoan, baina haiek atera eta ustiatzeko tresneria eta baliabideak behar dituzte. Ildo horretatik, hitzarmen handia sinatu zuten Ekialdeko Timorko agintariek joan den uztailean Australiak Gobernuarekin beren itsasoko gasa eta petrolio atera eta merkaturatzeko. Akordio horren arabera, petrolio eta gase horrekin lortzen diren irabazien %90 Timorrentzat izango dira. Egindako aurreikuspenen arabera, 2004. urtean hasiko dira ustiatze horiek etekinak ematen eta 20 urtean 5 mila milioi dolar emango dituztela espero da.

Etorkizunera begira ateratako konfiantza horiek guztiak, etorkizun berria baitute timortarrek begien aurrean: 500 urteko morrontzaren ondoren bakarrik ibiltzen hasteko aukera. Nolanahi ere, mundu osoa globalizazioaren eta merkaturaren morroi dabilen garaian.